


SAGARTZAZU, Kaldiñ Euskalduna - El
Vasco, 1955. 7. 26. (5)

ZU, NESKA GAZTE

Zu, neska gazte,
Euskaldun lore:
Yaioterritik
Aldegin nai dezula-ta,
Gutean or zahiltz erreal



ZU, NESKA GAZTE

Zu, neska gazte,
Euskaldun lore:
Yaioterritik
Aldegin nai dezula-ta,
Gutegun or zabiltz ergel,
Kilikari, txoraturik...
Orregatik nik
Egi aundi bat
Esan nai dizut,
Egi garratza. Zuk Ana
Zar, manitsu bat daukazu,
Bear dezuna maitatu.

Izu, neska
Gazte,
Oroitu
Zaitte!

Zu yaiolziñan
Leengo erri
Alaitsu, ona.
Zu bezelako uxotxo
Folit, egoki askoren
Kabi maitetsu, kutuna.
Zure guraso
Aiton, amonak
Bizitu ziran
Leku eder, bikañena...
Ori zure Ana dezu,
Bear dezuna maitatu.

Izu, neska
Gazte,
Oroitu
Zaitte!

Goiko mendian
 Lore belarren
 Urrin(1)gozoa...
 Iturrico ur garbia,
 Zozo ta urtxindorren kantak,
 ¡Oi,nola alaitzen gogoal
 Anjo gastalak,
 Aritz-ederrak,
 Sagasti onak...
 Mendi alai ori ere
 Zure egizko Ana dezu,
 Bear dezuna maitatu.

iZu,neska
Gaste,
Oroitu
Zaitte!

Aundi,zabala,
 Arraiz betea,
 Kantauri-itsaso.
 Batsutan bizi,userre...
 Bestetan paketsu,bare...
 Buskal-arrantzaleak an
 Agertzen dute
 Trebe dirala
 Zernaitarako.
 Itsas-urdi ori ere
 Zureegizko Ana dezu,
 Bear dezuna maitatu.

iZu,neska
Gaste,
Oroitu
Zaitte!

Oroitzen zera
 Aurtxo zinala
 Aitonak zuri
 Samurki erakutsiak
 Euskerasko abestiak...
 Antzineko gure kanta
 Zar, bioztiak,
 Mundu guzian
 Berdin gabiak?
 Euskal kanta-ori ere
 Zure egizko Ama dezu,
 Bear dezuna maitatu.

iZu, neska
Gazte,
Oroitu
Zaite!

¡Oi, mendi-goian
 Aritz-artean
 Ederki dagon
 "Etxe-Txuri" basetxea,
 Ta ango sukalde goxoa
 Oroitz-alaiez betea...
 Ta suburu zar,
 Beltzatik, otoitz
 Gartsuakin bat
 Egin da, gora, zerura,
 Emeki dijoan kea...
 Amonatxoren "Tunkurrun"
 Abesti pare-gabea,
 Seaskatxoan
 Gozoro dagon
 Aurtxo txikia,
 Aingeru zoragarria...
 "Etxe-Txuri" ori ere
 Zure egizko Ama dezu,
 Bear dezuna maitatu.

iZu, neska
Gazte,
Oroitu
Zaite!

Jergatik yoa
 Nai dezu umuti
 Yaioteritik?
 Oira, zure zai or dago
 Euskaldun mutil gaztea,
 Aritza bezin sendoa...
 Alperrik zabiliz.
 Naita-re inon ez
 Dezu idoroko(1)
 Orrelako galai onik.
 Ez du lurrean paretik...
 Bikain, azkar, arin, eme...
 Ori zuretzat litzake
 Adizkide, lagun maite.

iZu, neska
 Gazte,
Oroitu
Zait!

Udaberriak
 Alde egin eta
 Negu txar, otza.
 Laisterka datorrenean...
 Illeak zuritzen asi.
 Ta arpegia zimurtzean...
 Ioi, bai, orduan
 Naiz berandu izan
 Zure begiak
 Zuzenduko dituzula
 Zu yai zilian lekura,
 Baserri zar, maitetsura!

iiZu, neska
 Gazte,
Gaur...bein-betiko
Oroitu
Zait!!!

SAGAR LORE

(1) Idoro: Hallar.

SAGARTZAZU, Kauldi.

Oleri, 1963-70-71

BIARRITZ

BIARRITZ,

Bai emiz

(1) Niviko: Caliz de las flores.

SAGAR 7224, Kauldi,

0kerti, 1963-71-71

BIARRITZ

Biarritz,

Bai egiz

Esan det amaika aldiz:

Munduan ez erririk

Zu bezin egokirik.

iZeruko

Izarra

Zu zera, argi ederra!

Gaztea

Nintzala

Yoan nintzan Zugana.

Orduan ikus nuen

Zure irudi ain lerdan...

Gerostik

Naita-re

Zugandik ezin alde.

Bskual

Erriko

Lõre usaidun niniko...(1)

Ur ertzean apainki,

Itsasoko egazti.

iAundere

Ain garbi

Gizonen txoragarrri!

Zuk dezun

Ondartza

Bai polit, aberatza.

Geienetan ortze urdin,

Itsasoa-re berdin...

Txaidi ta

Bazterrak

Txukin, garbi, ederrak.

(1) Niniko: Caliz de las flores.

Non-naitik
 Yendea
 Dator urez betea,
 Zurekin bizitzera,
 Osasuna geltzera...
 Iain dute
 Bearra
 Udan itsas-iparra!

Behere
 Ez aztu
 Euskoa zerata zu.
 Beti irauñ eder, garbi,
 Gure Erregein gelgarri...(1)
 Ez det nai
 Paris'ik
 Ez da-ere Londres'ik'.....
 Ibiotzan
 Erditik
 Anitz maite zaitut nik!

Biarritz:
 Guzien
 Ganetik
 Zuk diz-diz...
 Iagur, gora mila aldiz!

(1) Gelgarri: Admirable.